

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, identifikatu dugun gabezia, emango diogun konponbidez, eta gure lehiakideengandik diferentziazten gaituenaz hitzegingo dugu. Horrez gain, gure aplikazioaren funtsezko funtzio batzuen berri emango dugu.

Gure ustez gaur egungo gizartean dagoen arazo handi bat, enpresa-munduari buruz dugun ideia konplexu eta zail hori da: jende askoren ustez ekintzailetasunak ez du fruiturik ematen, eta bizitza arrakastatsu bat edukitzeko modu bakarra lana aurkitzea da. Gure ikuspuntutik, gure app-ak honi irtenbide erraza ematen dio, ekintzaile berriak aurkitu ditzaketelako eta haien ideiak garatzeko aukera izango dutelako, talde-lanean edota indibidualki lanean, gainera, haien ideia nahiko ona bada, ez dute diruaz kezkatu beharrik izango, beti egongo direlako inbertitzeko prest dauden pertsonak.



App-a lehen aldiz irekitzerakoan, bakoitzak bere profila erregistratu beharko du. Hau, telefono-mugikor zenbaki baten bidez egin beharra dago, nahitaez. Modu honetan, mugikor bakoitzeko kontu bakarra dago. Profila bete beharko dute, adina, bizilekua, argazkia... Hau egin ondoren, app-a bere osotasunean erabiltzeko askatasuna edukiko dute, baina erosotasun handiagoa edukitzeko app honen erabileran, proiektuaren deskribapen txiki bat idatzi beharko dute, beste erabiltzaileak haiekin kontaktatzeko aukera eduki dezaten.



Lehenik ikusiko diren gauzetako bat gure maparen funtzioa izango da. Munduko mapa honetan, mundu osoan zehar haien antzeko interesak biltzen dituzten proiektuak egongo dira. Beraien interesak hautatzeko, erregistratzen direnean zerrenda bat azalduko zaie eta

haien interesei gehien egokitzen diren aukerak hautatu ditzazkete. Pertsona

bakoitzak bere mapa pertsonalizatu dezake, filtroak erabiliz. Adibidez, *herrialde jakin batean bakarrik bilatzeko, gai batzuekin zerikusia duten ideiak bakarrik ikusteko, aurrekontu zehatz bat duten proiektuak bakarrik ikusteko, etab.*

Mapan, bi ikono mota ikusiko dituzte, zuria eta urdina:

Zuria: Ez ditu proiekturik martxan, profila bakarrik agertzen da eta hurak idatzitako deskribapena besterik ez da ageriko, hau da, ez du ideia propio bat, proiektu eta negozio berrien bila baizik dabil (inbertitzeko, partaide bat izateko...).

Urdina: Proiekturen bat du martxan, eta profilaz gain, proiektu hauen deskribapen labur bat eta egoera ikusiko da, hau da, ea proiektua oraingoz ideia bat bakarrik den, ea jende gehiago behar den, edo ea diru bila zauden, adibidez.



Horrez gain, ekintzaileen profiletan “txat”-a egongo da, proiektuei buruz dituzun zalantzak argitzeko, esaterako.

Gainera, pentsatu dugu jendeak enpresa baterako ideia bat edukiz gero ez lukeela on-line aplikazio batean jarriko, munduko pertsona guztiek ikus dezaten. Horregatik, ideia erregistratzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Hau web-orri baten bidez egiten dugu, eta aukera desberdinak dituzte, (maila nazionalean erregistroa, europa-mailan, mundu-mailan...) bakoitza dagokion prezioarekin, noski.

Horrez gain, diru transakzioez hitz egiten gaudenez, hasiera batean bi erabilera mota egongo dira app barruan: lehenengoa doainik eta bestea berriz, premium aukera, non hileko ordainketa bat eskatuko den, eta beste hainbat funtzio edukiko dituzte, adibidez; proiektua destakatzeko ahalmena.

Segidan, hizkuntzari buruz hitz egingo dugu. Euskal Herriko ekintzaileak garenez garrantzitsua iruditzen zaigu euskara aukera bezala jartzea, badakigu ez dela oso funtzionala baina gure esentzia adierazi nahi dugu. Gainera, ingelesa ere edukiko dugu, hizkuntza globala delako eta gehienek badakitelako ingelesez hitz egiten gaur egun.

Atal honekin bukatzeko, app-arekin arazoren bat baldin badute, guri jakinarazteko aukera edukiko dute, "bezeroari arreta" atalean. Gurekin kontaktu zuzenean jartzean, arazoa azaldu eta guk konponbidea bilatuko diogu.